

AURKIBIDEA

Abendualdiko kandelak pizteko lagungarria	4
Azaroaren 3an, ABENDUALDIKO I. IGANDEA.....	7
Abenduaren 8an, MARIA BIRJINAREN SORTZE GARBIA	16
Abenduaren 10ean, ABENDUALDIKO II. IGANDEA	26
Abenduaren 17an, ABENDUALDIKO III. IGANDEA.....	35
Abenduaren 24an, ABENDUALDIKO IV. IGANDEA.....	43
SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN	52
ADISKIDETZE SAKRAMENTUA.....	53

Kantua: «ABENDUAREN KANDELAK»

Doinua: Etxahun Iruri / Hitzak: Unai Manterola Albizu

0. A - ben - du - a - ren kan - de - lak

ar - gi e - gin - go di - gu, gi - za - di - a ez da - din

i - zan i - lu - na - ren ga - ti - bu.


Bi - zi be - rri - a er - ne - tzen do - a, frui -

tu E - gu - be - rri - du. En - bor za - ha - rra ger - ta -

tzen da bi - zi - a - ren tes - ti - gu.

1. Abenduko lehen argian / Itun Zaharra da giltza,
antzinatik iragartzen du / Salbamenaren Hitza.
Profeta zaharren itxaropenez / barne-pozez gabiltza,
zori pozgarria dakigun / Erreinuko bititza.

2. Argi honek indarra du / sugarraren oihartzun,
Bataiatzailea mintzo da: / "Datorrenari entzun".
Salbatzailea gertatzen zaigu / promesaren erantzun,
bide prestatzea lokarri / ta bakea eraztun.
3. Hiru kandelek digute / barne-gogoa poztu,
Andre Mariak erraietan / Jesu Kristo du sortu.
/hintza bezala, gozotasunez, / Jainkoa zaigu lotu,
gure barnean salbamena / badaiteke ehotu.
4. Laugarrengo su-argia / bizigarri ez al da?,
igo dugu dagoeneko / Abenduaren malda.
Maitasun eta itxaropenez / munduaren eztanda...
Dena berri gerta daiteke / garen oro emanda.



ABENDUKO KANDELAK PIZTEA

Aurreko orrialdean dator kantu bat, Abenduko kandelak piztean kanta daitekeena. 1. igandean, agurraren eta oharpenaren ondoren «0» bertsoa kanta daiteke, ondoren koroaren bedeinkapena egin, eta lehenengo kandela piztean «1» bertsoa. Beste igandeetan, igandeari dagokion bertsoa bakarrik.

Hona, lehenengo igandean bedeinkapena egiteko otoitza:

Astero, Abenduko kandelak piztean Eguberriaren argia jasotzeko prestatzen ari garela adieraziko dugu. Gaur, bedeinkapen otoitza egitera goaz aurreneko argia pizterako.

(Apaizak edota diakonoak besoak zabalik egiten dute otoitza; Hitzaren ospakizunean laikoak egin dezake otoitza, besoak zabaldu gabe).

Egin dezagun otoitz.

Jauna, egun hauetan lurra alaitzen da
eta Eliza pozez betetzen,
ilunpetan, ezjakinean, atsekabeen
eta bekatuan dauden gizakiengana baitator
argi amaigabea den zure Semea.
Jesus datorrela jakiteak sortu dion itxaropenez
koroa hau (enbor hau) prestatu du zure herriak
eta kandelaz apaindu.

Zure Semearen etorrerarako prestaera-garaia hastean
eskatzen dizugu, Jauna,
bere distira argi berriz areagotuz doan bezala,
gu ere argi gaitzazula munduaren argia den
eta ilunpe guztiak argitzen dituen Jesusen argiarekin
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Abenduaren 3an
ABENDUALDIKO I. IGANDEA (B)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jaunaren etorrera prestatzeko garaia, Abendualdia, hasten dugu gaur. Bizi dugun pandemia-egoera honetan inoiz baino gehiago behar dugu Jauna gertu egotea eta itxaropen-jarrerara berreskuratzea.

Hiru erataria itxaron genezake. Otoitzean egiten den itxarotea. Bizitzan jasotzen ditugun deiekin adi egonez itxarotea. Egintzen bidez testigantza eman ez itxarotea.

Jaunaren gertutasuna eskertuz ospatzen dugu Igandea, Jaunaren eguna.

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Bizia hurbiltzen ari zaigunean, ezin, bada, zoritxarreko egin gaituenari leku egin. Eska diezaiozun barkamena Jaunari.

—Jesus Jauna, mundura gu salbatzera etorria: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaren graziaz / etengabe geurekin zaituguna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure egintzak epaitzera / egun batean etorriko zarena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
 emaguzu zeure fededunoi Abendualdia hastean,
 gugana datorren Kristoren bidera
 egintza onez beterik ateratzeko gogoia,
 azken egunean bera aintzaz etortzean,
 haren eskuinaldean jarririk,
 zeruko erreinua irits dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Erne egotea kristauon jarrera funtsezkoa da. Jesus da horretarako itxaropena ematen diguna. Isaiasek hainbeste eskatzen zuen Jainkoaren presentzia, Jesusengan egia bihurtu zaigu. Uste sendo horrek sendotzen du gure gogoia etengabeko *abendualdi* batean.

Lehenengo irakurgaia (Is 63, 16b-17. 19b; 64, 2b-7)

Isaias profetaren liburutik

Zu zara, Jauna, gure aita,
 «gure Erosle» duzu izena betidanik.
 Zergatik utzi diguzu, Jauna, zeure bideetatik alde egiten,
 zure begirunerik ez izateraino gure bihotzak gogortzen?
 Itzul zakizkigu, zeure zerbitzariengatik,
 zeure ondare aukeratu dituzun leinuengatik.

Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina!
 Zure aurrean mendiak urtuko lirateke.
 Jaitsi zinen, eta mendiak urtu egin ziren zure aurrean.
 Inoiz ez du ez belarrik aditu, ez begik ikusi,

Zu beste Jainkorik
beragan itxaro dutenen alde horrela jokutzen duenik.
Zeu ateratzen zara,
pozik eta zuzen dabiltzanen
eta zure bideak gogoan dituztenen bila.

Haserre zeunden, bai, bekatu egin genuelako,
aspaldidanik bekatari garelako,
baina salbatuko gara.
Guztiok kutsatuak geunden,
gure egintza onak ere zapi zikinen antzeko ziren;
orbelaren antzera ihartzen ginen guztiok,
eta gure bekatuek haizeak bezala eramaten gintuzten.

Ez zion inork zure izenari dei egiten,
ez zen ahalegintzen inor Zurekin bat egiten,
zeure aurpegia gorde egin baitzenuen gugandik,
eta geure erruetan murgilduak utzi gintuzun.
Hala ere, Jauna, Zu zara gure aita;
gu buztina, eta Zu gure buztinlaria:
zure eskuetako lana gara guztiok.

Erantzun-salmoa (*Sal* 80 [79], 2acd eta 3bc. 15-16. 18-19)

Sal - ba - tzai - le - a, za - toz len - bait - len! Zu -
re zai, Jau - na, gau - de gu he - men.



- ✠. Entzun, Israelen artzain, '
 hegodun izakien arteko tronuan zaudden hori,
 ager zakizkigu dirdaitsu.
 Suspertu zeure ahalmena
 eta zatozkigu salbatzera. ✠.
- ✠. Jainko ahalguztiduna, itzuli, arren,
 begira zerutik, ikusi!
 Hartzazu zeure mahatsondoaren ardura,
 zaindu zeure eskuz landatu duzuna. ✠.
- ✠. Emaiozu eskua zeure aukeratuari,
 zeure indarrez jantzi duzun gizasmeari.
 Ez gara Zugandik inoiz aldenduko;
 Zuk bizia emango diguzu
 eta guk dei egingo diogu zure izenari. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 1, 3-9)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

Jainkoari eskerrak ematen ari natzaio beti zuengatik, zuei Jesu Kristogan Jainkoak eman dizuen graziagatik. Izan ere, Kristogan aberastu zaituzte dohain guztietan: bai hitzean eta bai jakintzan, Kristoz egiten dugun aitormena zuengan sendotu denez gero. Horrela, ez duzue dohainik batere falta Jesu Kristo gure Jaunaren agerraldiaren zain zaudetenok. Hark indartuko zaituzte azkena arte, inork zuen aurka zeresanik izan ez dezan Jesu Kristo gure Jaunaren

etorrera-egunean. Zintzoa da bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkarturik bizitzera deitu zaituzten Jainkoa.

Aleluia (Sal 85 [84], 8)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Erakutsi guri, Jauna, zeure **maitasuna**,
eman zeure **sal**bamena. √.

Ebanjelioa (Mk 13, 33-37)

Homiliarako argibideak

Bizitza amets bat da!

Garai hartan, Jesusek honela esan zien ikasleei: «Ez dakizue etxe nagusia noiz etorriko den: ilunabarrean, gauerdian, oilarrak jotzean, edota egunsentian: ustekabeen etorrita, lo aurki ez zaitzaten. Eta zuei esana, guztiei esaten diet: Zaudete erne!».

Jesusek darabilen hitz egiteko modu horrek munduaren ikuspegi oso zehatza du: gaur egungo denbora gau luze bat bezalakoa da; daramagun bizitza amets baten antzekoa da; bertan garatzen dugun jarduera frenetikoa, berez, amestea da. XVII. mendeko espainiar idazle batek, Calderón de la Barcak, drama ospetsu bat idatzi zuen gai honi buruz: «La vida es sueño».

Ametsetik gure bizitza laburtasuna da, batez ere. Lo denboratik kanpo gertatzen da. Loan gauzek ez dute errealitatean bezala irauten. Egunak eta asteak beharko lituzketen egoerak, lo minutu

gutxitan gertatzen dira. Gure bizitzaren irudi bat da: zahartzarora iritsita, atzera begiratzen du eta dena putz bat besterik ez dela izan uste du.

Loaren beste ezaugarri bat irrealtasuna edo harrokeria da. Batek bankete batean dagoela amestu dezake, eta asetasunera arte jan eta edan; esnatu eta berriz ere gosea izaten du. Pobre batek, gau batean, aberats bihurtu dela amets egiten du: loan estutu egiten da, bere aita mespretxatu arte, ez duela ezagutzen sinetsaraziz, baina esnatu egiten da, eta lehen bezala pobre dago berriro! Hala gertatzen da, halaber, bizitza honetako ametsetatik ateratzean. Bat aberatsa izan da, baina hemen hil egin da eta aberats zela amestu ondoren esnatzen den gizajoaren egoeran ikusten da. Zer geratzen zaio bere aberastasun guztiekin ondo erabili ez baditu? Esku hutsak.

Bada loaren ezaugarri bat, bizitzari aplikatzen ez zaiona: erantzukizunik eza. Ametsetan hil edo lapurtu egin dezakezu; esnatu eta ez dago erru-arrastorik; aurrekari penalen ziurtagiria orbanik gabe dago. Ez da hala bizitzan; ondo dakigu. Bizitzan egiten dugunak arrastoa uzten du, eta zein arrastoa! Izan ere, idatzita dago «Jainkoak emango diola bakoitzari bere lanen arabera» (Erm 2,6).

Maila fisikoan badira loaldia eragiten eta bateratzen laguntzen duten substantziak; somnifero deitzen zaie, eta gurea bezalako belaunaldi batean oso ezagunak dira, insomnioa duen kulturen bizi garelako. Maila moralean ere somnifero izugarria dago. Ohitura esaten zaio. Ohitura banpiroa bezalakoa da. Banpiroak –uste denaren arabera behintzat– eraso egiten die lotan dauden pertsoneri, eta, odola zurrupatzen dien bitartean, loaldia are gozoago sentiarazten duen substantzia bat txertatzen die; beraz, zorigaiztokoa gero eta gehiago hondoratzen da loan, eta banpiroak nahi duen odol guztia harrapa diezaioke. Bizioko ohiturak ere okertzen du kontzientzia, eta, beraz,

Zuk sortutakoak inoiz ahazten ez dituzun Aita, entzun Zure herriaren otoitzak, eta egizu ez gaitzela aldendu Zure bidetik, baizik eta erne bizi gaitzela beti Zure Seme Jesu Kristo noiz etorriko zain. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;
egizu, ogi-ardo hauekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dugun Eukaristia
zure erospenaren betiereko sari gerta dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 3. (*Meza-liburua: 470. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

On egin diezagula, Jauna,
orain ospatu dugun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza iheskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maita ditzagula
eta horietan jar dezagula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *℟̄.* Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue

eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:

Jainko ahalguztidun errukitsuak,

haren etorreraren argiaz,

santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenaz bete. *℟̄.*Amen.

Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak

fedean sendo,

itxaropenean alai

eta maitasunean eginkor. *℟̄.*Amen.


Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz

pozten zaretenoi,

gero, berriro aintzaz etorriko denean,

eman diezazuela betiereko biziaren saria. *℟̄.*Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. *℟̄.*Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟̄.*Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 8an
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA
Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako Elizbarrutietan
Seminarioaren eguna

Agurra

Mariaren errailetan gizon egin zen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Abendua Andre Mariaren hila da. Bera da itxaroten dakiena, bera da “Itun Berriaren Kutxa” Jaunak garbi eta eder prestatua. Berari begira ikasten dugu Eguzki berria onartzeko bidea egiten.

Gaur gainera Seminarioaren eguna dugu. Hauxe dugu goiburua: «*Jaiki zaitetz eta jarri bidean*». Gure apaizagaiak, Kristo bezala artzain onak izatea nahi dugu eta artzain misiolariak gainera, irteten den eliza izanez, bidean jarri, Berri Ona toki eta egoera guztietara eramango dutenak. Otoitz egingo dugu guztien alde eta beraien heziketarako izango da gure diru-bilketa.

Ospa dezagun pozik Amaren jaia. Jainkoa goretsiz eta eskerrak emanaz. Horrek lagunduko digu Eguberria prestatzen.

Damu-otoitza

Presta gaitezen Eukaristiarako, gure bekatuen barkamena eskatuz.

—Jesus Jauna, zeure herria salbatzeko Maria Birjinagan gizon egin zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gizadiaren itxaropen guztiak betetzera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure Ama bekatutik garbi eta graziaz betea egin zenuena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *℟*. Amen.

Aintza zeruetan

Andre Mariarekin eta santuekin bat eginik eta Eliza osoarekin batera gores dezagun Jainkoa Aintza zeruetan [esanez] kantatuz.

Otoitza

Oi Jainko,
egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari
Maria Birjinaren Sortze Garbiaz
eta, honen Semearen heriotza aurreikusirik,
garbi gorde zenuen bekatu guztitik Ama;
egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,
gu ere Zugana garbi irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Testigu alaiak izateko deia egiten zaigu. Erantzun dezagula Mariak bezala: «Hona hemen ni, Jauna, gerta bedi nigan zure nahia».

Lehenengo irakurgaia (*Has 3, 9-15. 20*)

Hasiera liburutik

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako».

Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengo; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Erantzun-salmoa (Sal 98 [97], 1. 2-3b. 3c-4)

Kan -ta Jau - na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -
tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

- ∇. Kanta Jaunari kantu **berria**,
egintza harrigarriak egin **baititu**;
garaipena eman dio bere **eskuin**ak,
bere beso **santu**ak. ∇.
- ∇. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **aur**rean.

Ez da ahaztu bere maittasunaz,
Israel herriari dion leialtasunaz. ℞.

- ℣. Munduko bazter guztiki dute
gure Jainkoaren garaipena.
Egin irrintzi Jaunari, lur osoa,
egin poz-oihu eta kantu, jo soinua. ℞.

Bigarren irakurgaia (Ef 1, 3-6. 11-12)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez
bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu
baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean,
maitasunez.

Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren
bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal
eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin
berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik
Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala
egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren
arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Aleluia (Ik. Lk 1, 28. 42)





∇. Poztu zaitetz, Maria, graziaz **bete** hori!
 Jauna zurekin,
 bedeinkatua zu emakumeen artean. ∇.

Ebanjelioa (Lk 1, 26-38)

Homiliarako argibideak

Edertasunaren jaia

Maria Sortzez Garbia dela esaten dugunean, bi gauza esaten ditugu, bata negatiboki eta bestea positiboki: negatiboki, jatorrizko bekatuaren «orbanik» gabe sortu dela; positiboki, grazia osoz iritsi dela mundura. Hitz horretan adierazia dago Maria den guztia. Jai honetako Ebanjelioak azpimarratzen du, aingeruaren hitza berriro entzunez: «Poztu zaitetz, graziaz betea, Jauna zurekin dago».

Grazia hitzak bi esanahi ditu. Mesede, barkamen, amnistia... esan dezake, grazia lortu duen heriotza-kondenatu bati buruz ari garenean bezala. Baina edertasuna, lilura, adeitasuna... ere adieraz ditzake. Gaurko munduak ondo ezagutzen du bigarren grazia-zentzu hori, are gehiago, ezagutzen duen bakarra da.

Biblian ere bi esanahi horiek ditu. Lehenik eta behin, doako eta merezi gabe jasotako jainkozko dohaina adierazten du, bekatuaren aurrean barkamen eta erruki bihurtzen dena; baina gero, jainkozko alde horretatik datorren edertasuna ere adierazten du, graziazko egoera deritzoguna.

Mariarengan bi grazia-esanahi horiek aurkitzen ditugu. Bera «graziaz betea» da, batez ere mesede eta aukera bakar baten xede izan delako; bera ere «saritua» izan da, hau da, Kristoren graziak dohainik

salbatu du. (Bera jatorrizko bekatutik gorde zuten, «Kristoren merezimenduak aurreikusteko»!). Baina «graziaz betea» da, halaber, Jainkoak aukeratu izanak distiratsu bihurtu duelako, orbanik gabe, «eder», «tota pulchra», Elizak jai honetan abesten dion bezala.

Sortzez Garbia graziaren eta edertasunaren festa bada, horrek badu zerbait esateko. Edertasunak denok ukitzen gaitu, giza ekintzaren pizgarri sakonenetako bat da. Harenganako maitasunak guztiak batzen gaitu. «Mundua edertasunak salbatuko du», esan zuen Dostoievskik. Baina horri erantsi behar diogu, mundua galdu ere gal daitekeela edertasunagatik.

Zergatik bihurtzen da hain maiz edertasuna tranpa hilgarri, delituen eta malko mingotsen ondorioz? Zergatik gertatu dira edertasunaren pertsonifikazio asko, Homeroren Helenatik aurrera, luto eta tragedia izugarriak eta edertasun-mito moderno asko bukatu dira hain modu tristean?

Pascalek dio hiru handitasun-ordena edo balio-kategoria daudela munduan: gorputzen eta gauza materialen ordena, adimenaren eta jenioaren ordena, eta ontasunaren edo santutasunaren ordena. Lehen mailakoak dira indarra, aberastasun materialak; bigarren mailakoak jenioa, zientzia, artea; hirugarren mailakoak ontasuna, santutasuna, grazia.

Maila horietako bakoitzaren eta hurrengoaren artean alde ia infinitua dago. Jenioari ez dio ezer kentzen edo jartzen aberatsa edo pobrea, ederra edo itsusia izateak; haren handitasuna maila desberdin eta goragoko batean kokatzen da. Era berean, santuari ez zaio ezer gehitzen edo kentzen indartsua edo ahula, aberatsa edo pobrea, jenioa edo letragabea izateagatik: handitasuna plano desberdin eta infinituki handiago batean kokatzen da. Gounod musikariak esaten

zuen santutasun-tanta batek jenio-ozeano batek baino gehiago balio duela.

Pascalek handitasunaz oro har esaten duen guztia edertasunari ere aplikatzen zaio. Hiru edertasun mota daude: edertasun fisikoa edo gorputzena, edertasun intelektual edo estetikoa, eta edertasun moral eta espirituala. Hemen ere, plano baten eta hurrengoaren artean, tarte handia dago dudarik gabe.

Maria Sortzez Garbiaren edertasuna hirugarren planoan kokatzen da, santutasunaren eta graziaren planoan, are gehiago, bera da plano horretako gailurra Kristoren ondoren. Barne-edertasuna da, argiz egina, harmoniaz, errealitatearen eta Jainkoak emakumea sortzean zuen irudiaren arteko korrespondentzia perfektuaz egina. Eva da, bere goraldi eta perfekzio osoan, «Eva berria».

Denok egin dezakegu zerbait, mundu eder eta garbiago bat etorriko diren belaunaldiei emateko, bestela, gure etxean eta bihotzean begietako leihoen bidez sartzen uzten duguna ondo aukeratuz. Mariarentzat bizitzako abiapuntua izan zena, sinesmen ororentzat, helmuga da. Izan ere, Elizak ere «orbanik eta zimurrik gabea, santua eta garbia» izan behar du (*Ef 5, 27*).

Gaur, Seminarioaren eguna ospatzean haxe dugu gogoan, hasieran aipatu dugun moduan: «*Jaiki zaitetz eta jarri bidean*». Behar ditugu Jainkoaren deia entzunaraziko digutenak, beraien egintzen bidez entzunarazi ere. Otoitz egin dezagun beraien alde. Otoitz egin dezagun Jainkoak deitzen jarrai dezan. Otoitz egin dezagun dei horrek erantzun sendoa, baikorra, maitetsua izan dezan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Andre Mariarengan gizakien salbamena hasi zuen Jainkoari, eska diezaiogun Jaunaren bidera ateratzeko indarra eta laguntza:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



- Salbamenaren betea Mariarengan aurreikusi zuen Jaunak, lagun diezagula Elizako kide guztioi Kristoren Amaren edertasuna islatzen. Egigun otoitz. ✠.
- Andre Mariarengan Salbatzailea ernearazi zuen Espiritu Santuak berak mundua bete dezan eta gizaki guztiengan Jainkoaren Erreinuarekiko gogo beroa sorrarazi dezan. Egigun otoitz. ✠.
- Gure apaizgaiak jaso dezaten kristau-elkarteen harrera eta beroa eta Andre Mariaren antzera Jainkoaren aurrean lanerako prest agertuko diren apaiz bokaziodunak gure artean falta ez daitezen. Egigun otoitz. ✠.
- Andre Mariari begira, berak bezala Kristo onartzeko prestatu gaitzen eta Haren jaiotzako jaiak bihotzez ospa ditzagun. Egigun otoitz. ✠.

Jainko gure Jauna, Andre Mariaren sortze garbian salbamenaren egunsentiak argi egin dezan nahi izan duzu; entzun gure otoitzak eta egizu Elizaren ekintzaz eta testigantzaz gizaki guztiek ezagutu dezatela zugandik datorkigula salbamen betea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (Diru-bilketa egiterakoan)

Gaurko diru-bilketa gure Seminarioari laguntzeko izango da. Gure apaizgaiak ongi presta daitezen lagunduko dugu, baita bokazio pastoraltzak harrera ona egiten jarrai dezan ere.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, Maria Birjina dohatsuaren
Sortze Garbiaren festaburua ospatzean
eskaintzen dizugun opari salbagarria;
eta hura, aurretiaz hartutako zure graziari esker,
erru guztitik libre izan zela aitortzen dugun bezala,
libra gaitzazu gu ere, haren otoitzaren laguntzaz,
bekatu guztietatik.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟̄.* Amen.

Prefazioa: Sortzez Garbiarena (*Meza-liburua: 917. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren sortzea
jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen miragarriri;
hartu dugun sakramentu honek senda ditzala gugan
bekatu horren zauriak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟̄.* Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *℟̄.* Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(*Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:*)

Maria Birjina dohatsuagandik jaiotakoaren bitartez
gizadia bihotz onez salbatu duen Jainkoak
eman diezazuela oparo bere bedeinkapena. *℟̄.* Amen.

Bizi-iturria eman dizuen Mariaren laguntza
izan dezazuela nonahi eta beti. *℟̄.* Amen.

Eta Mariaren jaia santuki ospatzera etorri zaretenoi
eman diezazuela Jainkoak
Espirituaren poza eta zeruko sariaren dohaina. ✠ . Amen.
Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ✠ . Amen.
Zoazte Jaunaren bakean. ✠ . Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 10ean
ABENDUALDIKO II. IGANDEA (B)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Gaurko ospakizunean hiru ahots berezi entzungo ditugu: Isaias profetarena, Joan Bataiatzailearena eta Pedrorena: Jaunaren bidea konfiantzaz prestatzea beharrezkoa zaigula hots egiten dute.

Jauna, bidean jartzen den herriarekin doa, bide-erakusle eta bidelagun. Bidea prestatu behar diogu, gurekin etor dadin. Urduritasunik gabe, mesfidantzarik gabe, ezinean goibeldu gabe. Konfiantza osoa izan behar dugu: Jainkoak beteko du hitz eman digun guztia.

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezten.

—Jesus Jauna, gure bekatu guztien barkamen-**iturria** zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztiok bihotz berritu **gaitezen** nahi duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaz bata**iatu** gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna eta errukitsua,
 lur honetako gauzen ardura ez dezagula eragozpen izan
 zure Semeari bidera gogotsu irteteko;
 eta eraman gaitzazu, jainkozko jakinduriaren irakaspenez,
 zeure Semearekin bat egitera.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Kontsolamendua eman eta itxaropena pizten diguten hitzak entzutera goaz. Jainkoak, Artzainik onenaren moduan gidatu nahi gaitu. Bere salbamen indarra gugana irits dadin, ordea, bidea zabaldu behar diogu. Zabal diezaiozun bihotza Jainkoari.

Lehenengo irakurgaia (Is 40, 1-5. 9-11)

Isaias Profetaren liburutik

«Kontsola ezazue, kontsolatu nire herria, dio Jainkoak.
 Mintza bihotzera Jerusalem, egiozue oihu:
 bete duela bere morroialdia, ordaindua bere erruen zorra,
 Jaunaren eskutik hartua baitu bere bekatu guztien ordain bete».

Mintzo bat ari da oihuka:

«Prestatu basamortuan bidea Jaunari;
 zelaitu eremuan galtzada gure Jainkoari.
 Bete daitezela haranak, beheratu mendi eta muinoak;
 berdin daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak.
 Orduan Jaunaren aintza agertuko da,
 eta gizaki guztiek batera ikusiko dute
 –Jaunak berak esan du–».

Igo mendi-gailurrera, Siongo mezularia;
 egin deiadar handi, Jerusalemgo mezularia;
 egin deiadar, ez beldur izan.

Esan Judako hiriei:

«Hona hemen zuen Jainkoa.

Hara, indarrez jantzia dator Jainko Jauna,
 eta haren besoa nagusi da.

Hara, berekin dakar garaipen-agiria
 eta bere aurretik berak askaturiko herria.

Artzainak bezala zaintzen du artaldea;
 arkumeak besoa hartu eta altzoan eramaten ditu,
 ardi-ama berriak arduraz gidatzen».

Erantzun-salmoa (Sal 85 [84], 9ab eta 10. 11-12. 13-14)

Jau - na, zu - re on - gi - nai - a e - ra - kus e - zai - gu -
 zu, zu - re sal - ba - me - na e - mai - gu - zu.

- ∇. Entzungo dut Jainkoak **di**oena:
 Jaunak bakea agintzen die bere herriari eta fed**ed**unei.
 Hurbil dute salbamena begirune **di**otenek;
 bai, gure lurraldean kokatuko da Jaun**a**ren aintza. ℞.
- ∇. Maitasunak eta leialtasunak elkar dute **te** aurkitzen,
 justiziak eta bakeak elkar bes**ar**katzen.
 Leialtasuna lurretik **da** ernetzen,
 justizia zer**u**tik jaisten. ℞.

℣. Jaunak emango **du** euria,
 eta gure lurak ekarriko **bere** uzta.
 Haren aurretik joango da **justizia**,
 haren urratsei jarraituko die **ongizateak**. ℞.

Bigarren irakurgaia (2 P 3, 8-14)

San Pedro Apostoluaren bigarren gutunetik

Senide maiteok: Ez zaizue hau ahaztu behar: Jaunarentzat egun bat mila urte bezala dela, eta mila urte egun bat bezala. Jauna ez da berankorra agintzaria betetzen, batzuek hala uste badute ere; baizik eta pazientzia du zuekin, ez baitu inor galtzea nahi, guztiok bihotz-berritzea baizik. Jaunaren eguna, ordea, lapurra bezala ustekabean etorriko da. Orduan, burrunba handiz desagertuko dira zeruak, lurraren osagaiak kiskalirik ezereztuko dira, eta lurra eta bertako gauza guztiak agerian geldituko.

Gauza hauek guztiak honela ezereztu beharrekoak direnez gero, begira zein santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak!

Bizi zaitzete, beraz, Jainkoa etorriko den egunaren zain eta egin lan, lehenbailehen hel dadin. Egund hartan, sutan desegingo dira zeruak, eta lurraren osagaiak kiskalirik ezereztuko. Guk, ordea, Jaunak agindu bezala, zuzentasunaren bizileku diren zeru berriak eta lur berria itxaroten ditugu.

Beraz, ene maiteok, hauek itxaroten dituzuela, ahalegin zaitzete Jainkoarekin bakean bizitzen, garbi eta errurik gabe haren aurrean.

Aleluia (*Lk 3, 4. 6*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Prestatu bidea Jaunari,
 zuzendu bidexkak hari;
 ikusiko dute gizaki guztiek
 Jainkoaren salbamena. ☩.

Ebanjelioa (*Mk 1, 1-8*)**Homiliarako argibideak***Ahots bat basamortuan*

Abendualdiko Bigarren igande honetan, Joan Bataiatzailea ageri zaigu. Ebanjelioan, berak bere buruari ematen dion definizio hori azpimarratua geratzen da: «Mintzo bat oihuka ari da basamortuan: "Urre ezazue bidea Jaunarentzat"». Basamortu hitza kezagarria da gaur egun. Lurrazalaren ia %33 basamortua da. Eta proportzioa izugarri handitzen da desertifikazioaren fenomenoaren ondorioz. Urtero, landu daitezkeen ehunka mila hektarea basamortu bihurtzen dira. 135 milioi pertsona inguru urrundu dira beren egoitza naturaletik, azken urteotan, aurrera doan basamortuan.

Baina bada beste basamortu bat: ez kanpoan, baizik eta gure barruan; ez gure hirien ertzetan, baizik eta haien barruan. Giza harremanak hoztea, bakardadea, axolagabetasuna, anonimatua. Basamortuan, inork oihu egiten badu, ez dio inork entzuten, lur bukatuan esnatzen bazara, inork ez zaitu hurbiltzen, piztia basati batek eraso egiten badizu inork ez zaitu babesten, gozamen handia

edo pena handia sentitzen baduzu, ez duzu inorekin partekatuko. Ez al da hori askotan gertatzen gure artean? Gure gizartearen ezina eta garrasia ez al da basamortuan egiten den garrasiaren modukoa?

Baina basamortu are arriskutsuagoa da gutako bakoitzak barruan daramana. Hain zuzen, bihotza basamortu bihur daiteke: idorra, motela, afekturik gabea, itxaropenik gabea, hondarrez betea. Zergatik ez dute lortzen askok lanetik ateratakoan moztea, mugikorra, irratia, musika itzaltzea? Basamortuan egoteko beldurra dute. Naturak, esaten da, hutsaren izua du (horror vacui), baina gizakiak ere hutsunea saihesten du. Zintzo aztertuz gero, ikusiko dugu zenbat gauza egiten dituen gutako bakoitzak bere burua eta errealitatea aurrez aurre ez aurkitzeko.

Komunikabideak zenbat eta gehiago ugaritu, orduan eta txikiagoa da benetako komunikazioa. Telebistari familiaren elkarrizketa itzali izana leporatzen diote, eta batzuetan hori egia da. Baina onartu behar dugu telebistak maiz betetzen duela hor dagoen hutsune bat.

Ebanjelioak, entzun dugunez, egun batean basamortuan oihartzun egin zuen ahots batez hitz egiten du. Albiste handi bat aldarrikatzen zuen: «Nire ondoren dator, ni baino ahaltsuagoa dena, ni ez bait naiz inor, makurtuta, Haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Joan Bataiatzaileak Mesias badatorrela hitz xumeekin iragarri du, (sandalien uhala, larraina, haizea, alea) baina zer eraginkor! Lan handia egin zuen: lokartutako mundua amets handi hartatik esnaraztea. Zenbat eta itxaronaldi luzeagoa izan, orduan eta neke handiagoa sortzen da, inertzia-indarra dela eta aurrera egiten badu. Zerbait aldatuko dela eta benetan espero zena iritsiko dela sinestea gero eta zailagoa dirudi.

Mendeetan zehar, itxarote horri buruz hitz egin zen: «Egun haietan...; azken egunetan...». Eta orain gizon bat aurreratzen da, eta

seguru aldarrikatzen du: «Egun hura egun hau da. Iritsi da ordu erabakigarria». Berak pertsona batengana zuzentzen du behatza eta esaten du: «Hona hemen Jainkoaren bildotsa, Espirituaren indarrez mundua bataiatuko duena!» (Ik. Jn 1,29.33). Ze zirrara eragin ote zien entzuten zutenei!

Jesusek basamortua loratzeko duen modua «Espiritu Santuarekin bataiatzea» da. Espiritu Santua maitasun pertsonifikatua da, eta maitasuna da gure planetaren pixkanakako desertifikazio espirituala geldiaraz dezakeen euri bakarra.

Gertaera pozgarri bati ere arreta jarri behar diogu. Gure gizartea basamortuaren oso antzekoa bada ere, egia da basamortu honetan Espiritua oasi gisa ekimen asko lorarazten ari dela. Urte hauetan, dozenaka elkarte garatu dira, isolamendua hausteko, gure hirietako «basamortuan» oihu egiten duten ahots ugariak biltzeko. Izen ezberdinak dituzte: «itxaropenaren telefonoa», «bide laguna», «telefono berdea», «telefono urdina». Milioika dei urtean. Bakarrik dauden pertsonen ahotsak dira, etsita daudenak, arazo handiagoak dituztenak. Ez dute dirurik bilatzen (ez da telefono-haritik pasatzen), beste zerbait baizik: ahots lagun bat, itxaropen-arrazoi bat, komunikatzeko norbait. Hariaren beste muturrean milaka boluntariok entzuten dute, giza bero pixka bat ematen saiatzen dira, eta, sinestunak badira, pertsoneri otoitz egiten, Jainkoarekin harremanetan jartzen laguntzen diete, Jainkoak laguntzen baitu.

Elkarte horietako kide ez bagara ere, guztiok egin dezakegu, gure mugekin, haiek egiten dutena. Telefonoa, hasteko, denok dugu. Ez egon beti telefonoak jo arte, norbaitek behar zaituela konturatzeko. Ireki bihotza eta hartu aurrea behar duenaren bakardaderari. Batez ere Gabonak hurbil daudenean.

Jainkoaren herriaren otoitza

Atera gaitezen bakez datorkigun Jaunaren bidera eta egin diezaiogun otoitz:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Eliza poz handiz bizi dadin beti, eta itxaropen osoz sinets dezan Jauna gertu duela. Egigun otoitz. ✠.

—Egiazko bakez bizi gaitezen, errukiaren, barkamenaren eta adiskidetzearen bidetik. Egigun otoitz. ✠.

—Jaunak, Bere etorreraz, bihotz hautsiak sendo ditzan eta belaun makurtuak sendotu. Egigun otoitz. ✠.

—Jainkoaren promesak fede beroz sinets ditzagun eta Beraren laguntzaz hitz emandakoak onartzeko prest ager gaitezen. Egigun otoitz. ✠.

Gure atsegin zaren Jainko eta errukizko Aita, Zuk agindu diezu mundu honetan erromes diren gizakiei zero berria eta lur berria; entzun gure otoitzak eta mintza zakizkio bihotzera Zure herriari, garbi eta leial itxaron dezagun Zure Semearen agerpena. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Bigun zaitzabela, Jauna, gure otoitz eta eskaintza apal hauek, eta, geure aldetik merezimendurik ez dugunez gero, lagun diezagula zure errukiak dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 1. (*Meza-liburua: 466. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Eukaristiako espiritu-janari honek aserik,
otoitz egiten dizugu, Jauna:
erakutsiezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 15. or.*)

Abenduaren 17an
ABENDUALDIKO III. IGANDEA (B)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Gaurko liturgian hiru testiguk laguntzen digute Jaunarenganako bidean: Isaias eta Paulo pozaren testigu ditugu; Joan Bataiatzailea argiaren testigu. Jesus dugu egiazko poza eta egiazko argia. Berari begira jartzen gaituzte haren testiguen; eta Jesusi begiratuta gu geu testigu izatera deituak gara.

Senti dezagula gure burua aukeratuen taldeko: mundu guztiari jakinaraziz Jaunak zoriontsu izatera deitzen gaituela, eta bihotz berriz ekin behar diogula bide horri

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: Jaunaren etorreraren gertutasuna haren errukia gozatzeko aukera da. Eska diezaiogun apaltasunez gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, zure herriari bakea ekartzera **etorri** zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, galdurik zegoena salbatzera **etorri** zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua berri egitera **etorri** zinena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Otoitza

Oi Jainko, ikusten duzu zeure herria,
Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten;
egizu, arren,
irits gaitezela salbamen miragarriaren zorionera
eta gorapen eta pozik handienaz ospa dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Profetaren hitzak Jesusengan betetzen dira: Bera da Espirituak gantzutua: Jaunaren errukia eta osasuna, grazia eta askatasuna dakartzana. Joan Bataiatzaileak prestatzen digu Haren bidea: argiaren testigua da bera, baina argi hori ez dute denek ikusten.

Lehenengo irakurgaia (Is 61, 1-2a. 10-11)

Isaias Profetaren liburutik

Jainko Jaunaren espiritua nire gainean dago,
Jaunak gantzutu bainau.
Hark bidali nau behartsuei berri ona ematera,
bihotz-urratuak sendatzera,
gatibuei amnistia hots egitera eta giltzapetuei askatasuna;
Jaunaren onginahi-urtea hots egitera.

Pozaren pozez nago Jaunarekin,
neure arima Jainkoarekin alai daukat,
salbamenaz jantzi bainau,
garaipen-soinekoz estali,
koroa janzten duen senargaia bezala,
edergailuz apaintzen den andregai bezala.

Lurak landarea ematen
 eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala,
 hala ernearaziko du Jaunak justizia eta gorespena
 nazio guztien aurrean.

Erantzun-salmoa (*Lk 1, 46-48a. 48b-50. 53-54*)

Sal - ba - tzai - le - a, za - toz len - bait - len! Zu -
 re zai, Jau - na, gau - de gu he - men.

- ✠. Handiesten du nire ari**mak** Jauna,
 pozaren pozez daukat neure **barrua**,
 Jainkoa baita nire sal**bamena**,
 ikusi baitu mirabe honen ezerezt**asuna**. ✠.
- ✠. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi **guztiek**,
 handiak egin baitizkit Ahalguz**tidunak**;
 santua da haren **izena**,
 eta haren errukia gizaldiz gizaldi '
 begirune dioten**engana**. ✠.
- ✠. Ondasunez bete ditu gose **zeudenak**
 eta esku-hutsik bidali ab**eratsak**.
 Lagun etorri zaio bere morroi Isra**raeli**,
 bere errukiaz oro**it**urik. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ts 5, 16-24)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe; eman eskerrak beti, horixe nahi baitu zuentzat Jainkoak Kristo Jesusengan. Ez itzali Espiritua, ez gutxietsi profeta-dohainik. Aztertu guztia eta hartu on dena. Zaindu zeuen buruak nolanhiko gaiztakeriatik.

Bakea ematen duen Jainkoak berak egin zaitzatela oso-osorik santu, eta zuen izate osoak –espirtu, arima eta gorputz– errugabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera arte. Leiala da dei egin dizuena, eta beteko du emandako hitza.

Aleluia (Is 61, 1 [ik. Lk 4, 18an aipatua])



∞. Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
behartsuei Berri Ona ematera **bidali** nau. ∞.

Ebanjelioa (Mt 11, 2-11)

Homiliarako argibideak

Egon beti pozik Jaunagan!

Abendualdiko hirugarren igandeari «poztasunaren igande» esaten zaio, eta lehen zatia, nagusiki neurritsua eta penitentziazkoa utzi eta Abendualdiaren bigarren zatira igarotzea markatzen du, hurbileko salbazioaren zain gaudelako. «Zaudete beti pozik Jaunarengan» (gaudete) hitzetatik dator igande honen izena: «Poz zaitetze Jaunarengan beti! Berriro diotsuet, poz zaitetze» (Flp, 4,4-5). Baina

pozaren gaiak hitzaren liturgia ere hartzen du. Lehenengo irakurgaietan, profetaren garrasia entzun dugu: «Jainkoaren gozamenarekin gainezka nago eta Jainkoarekin pozten naiz». Erantzun-salmoa Mariaren *Magnificat* izan da: «Jaunarekin pozten naiz». Bigarren irakurgaiak, azkenik, Pauloren hitzekin hasten da: «Senideok: Zaudete beti pozik».

Zoriontsu izatea da, beharbada, giza desirarik unibertsalena. Guztiek zoriontsu izan nahi dute. Schiller poeta alemaniarrak gozamenerako irrika unibertsal hori kantatu zuen, ondoren Beethovenek betikotu zuen poesia batean, Bederatzigarren Sinfonia amaitzen duen Alaitasunaren gorazarre ospetsua eginez. Ebanjelioa ere, bere modura, pozaren gorazarre luzea da. «Ebanjelio» izenak berak, dakigun bezala, berri zoriontsua esan nahi du, pozaren iragarkia. Baina Bibliak alaitasunari buruz duen diskurtsoa diskurtso errealista da, ez idealista, ez bihurria. Erditu den emakumearen konparazioarekin (Jn 16,20-22), Jesusek gauza asko esan dizkigu. Haurdunaldia, oro har, ez da erraza emakumearentzat. Eragozpenez beteriko garaia da, era guztietako mugak dituen: ezin da nahi dena egin, ez jan, ez nahi dena jantzita eraman. Hala ere, nahi den haurdunaldia denean, giro lasaian bizi denean, ez da tristura garaia, poz garaia baizik. Sinplea da: aurrera begiratzen da, haurra besoetan eduki ahal izateko uneaz arduratzen da. Ama batzuei entzun diet ezin dela beste giza esperientziarik alderatu ama bihurtzean izaten den zoriontasunarekin.

Horrek guztiak oso gauza zehatza esaten digu: benetako alaitasunak beti iristen dira sakrifizioetik. Ez dago arantzarik gabeko arrosarik! Munduan, plazera eta mina (ikusia dugu) bata besteari jarraitzen zaizkio, olatuak igerilaria hondartzara bultza eta itsaso handira erakartzen duen indar berarekin. Gizakiak, etsi-etsian, bi «anaia siames» horiek banandu nahi ditu: mina eta plazera bereizi nahi ditu. Baina ez da lortzen, plazer desordenatua bera bihurtzen

baita samintasun. Edo ustekabeen eta tragikoki, eguneroko kronikek esaten diguten bezala, irauteko gaitasunik ez izateagatik eta horrek sortzen duen gogaikarritasunagatik. Nahikoa da pentsatzea, adibide argiago bat jartzearren, zer geratzen den drogaren kitzikapenetik efektua amaitu eta minutu batera. Graciezio poeta paganoak bi bertso ahaltsu ditu horri buruz: «Bada zerbait garratza gure plazer bakoitzetik sortzen dena, eta larritu egiten gaitu, baita gure gozamenen erdian ere».

Ezin denez, beraz, plazera eta mina banandu, aukeratu egin behar da: edo plazer iragankorra, min iraunkorra eragiten duena, edo plazer iraunkorra eragiten duen min iragankorra. Horrek ez du plazer espiritualerako bakarrik balio, baizik eta giza poztasun zintzo orotarako: jaiotza, familia batua, festa, pozik burututako lana, maitasun bedeinkatuaren gozamena, adiskidetasuna, uzta ona nekazariarentzat, arte-sorkuntza artistarentzat, atletarentzako garaipena.

Baten batek esan dezake: baina, orduan, fededunarentzat, poza, bizitza honetan, beti izango da itxaronaldia, «etortzeke dagoenaren» gozamena bakarrik? Ez; bada poz sekretu eta sakona, hain zuzen ere itxaronaldian. Are gehiago, hori da, agian, munduan, poztasunaren formarik garbiena; espero den poza. Poztasunik handiena ez da igandearena, larunbatarena baizik; ez da festarena, haren itxaronaldiarena baizik. Kontua da fededunok itxaroten dugun jaiak ez duela ordu batzuk bakarrik iraungo gero tristura etortzeko, baizik eta betiko iraungo duela.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jauna badatorrela jakiteak poztuta, egin dezagun otoitz senideok, gure askatasuna uste onez itxaro dugula

Erantzuna: **℞. Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure jokaera txarretatik,
eta datozkigun Eguberri-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. \mathcal{R} . Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 15. or.*)

Abenduaren 24an
ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (B)

Caritasen jardunaldi berezia

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Garrantzitsua da Maria Abendualdian. Bera izan zen entzundako hitza barneratzen eta betetzen jakin zuen emakumea. Horrelako testiguen, Jainkoa gizadiaren erdian dagoela gogoratzen digute; Bere erreinua betirako dela; Jainkoaren promesak betetzen ari direla; ezkutuan zegoen guztia Kristogan argitzen eta betetzen ari dela.

Eguberri aurreko igande honetan, urtero bezala Caritas elizaren erakundeak gogora dakartza behartsuak, hau da aurtengo goiburua: «Sentitu, hunkitu, Eguberria iritsi da». Gogoan izango ditugu otoitzean eta diru-bilketa berezian. Behartsuei harrera ona eginez, Kristo onartzeko prestatzen gara.

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: itxaropenaldian aurrera goaz. Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, ilunpetan bizi direnei argi egitera zatozen **munduko** argia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eramatera za**to**zen Artzain Ona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, aitaren agintzariak bernen betera eramateko, egun batean itzuliko zaren Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia,
 eta egizu, aingeruak esanik
 zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok,
 haren nekaldiaren eta gurutzearen bidez,
 iritsi gaitzela piztueraren ospera.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren presentzia tenpluko mugak baino zabalagoa da. Gizakia oso-osorik hartzen eta betetzen du. Presta gaitezen Hitzaren bidez presentzia hori geureganatzeko.

Lehenengo irakurgaia (2 Sm 7, 1-5. 8b-12. 14a. 16)

Samuel bigarren liburutik

David erregea bere etxean bizitzen jarri eta Jaunak inguruko etsai guztiekiko bakea eman zionean, hau esan zion erregeak Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jainkoaren kutxa, berriz, oihal-etxolan dago».

Natanek erantzun zion erregeari: «Zoaz eta bete zeure asmoa, Jauna zurekin baita».

Baina gau hartan bertan Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zuk eraiki

behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Nik atera zintudan larreetatik, artaldean atzetik, nire herri Israelen buruzagi izan zintezan. Zeurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Nik suntsitu dizkizut aurrean jarri zaizkizun etsai guztiak eta Nik emango dizut lurreko handikiena bezalako izen handia. Leku bat emango diot neure herri Israeli: han landatuko dut, bertan biziko da eta ez du aurrerantzean estualdirik izango. Gaizkileek ez dute zapalduko antzina bezala, neure herriaren gain buruzagiak ipini nituenean bezala. Bakea emango dizut etsai guztiekiko. Jaunak jakinarazten dizu zure jatorritik sortuko diren erregeak emango dizkizula.

Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengo emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti"».

Erantzun-salmoa (*Sal* 89 [88], 2-3. 4-5. 27 eta 29)

Jau-na, zu-re mai-ta-su-na a-bes-tu-ko dut

be-ti-ren be-ti.

- ∇. Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko ditut beti, zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi. Bai, aitortzen dut: «Betiko eraikia dago zeruan zure maitasuna, sendo ezarria zure leialtasuna». ∇.

- ∞. Ituna egin dut neure hautatuarekin,
David neure morroiari zin eginez:
«Sendo ezarriko dut betiko zure errege-jatorria,
menderen mende eraikiko zure errege-aulkia». R̄.
- ∞. Hark dei egingo dit: «Zu nire aita,
nire Jainkoa, nire harkaitz salbatzailea».
Beti gordeko diot neure maitasuna,
sendo eutsiko harekin dudan itunari. R̄.

Bigarren irakurgaia (Erm 16, 25-27)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Aintza Jainkoari, nik hots egiten dudan Berri Onaren eta Jesu Kristori buruzko nire predikuaren arabera fedean sendo zaitzaketen Jainkoari. Prediku honen bidez, betidanik ezkutuan zeukan misterioa agertu du Jainkoak. Misterio hori orain azaldu da, profeten idazkiek esan bezala, eta, betiereko Jainkoaren erabakiaren arabera, herri guztiei adierazi zaie, Jainkoari fedezko erantzuna eman diezaioten.

Jainko horri, jakintsu bakarrari, aintza Jesu Kristoren bitartez, gizaldi eta gizaldietan. Amen..

Aleluia (Mt 1, 23)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

- ∞. Hona hemen Jaunaren mirabea
gerta bekit zuk diozun bezala. R̄.

Ebanjelioa (*Lk 1, 26-38*)**Homiliarako argibideak***Sinetsi, benetako Gabonak egiteko*

Abendualdiko IV. igandeko Ebanjelioaren pasartea honela hasten da: «Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera». Iragarpenaren kontakizuna da. Ohi bezala, ordea, guk puntu batean jarri behar dugu arreta, eta puntu hori Mariaren hitzak dira: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala».

Hitz horiekin egin zuen Mariak fede aitortpena. Jainkoa bere bizitzan hartu zuen, Jainkoari eman zion konfiantza. Aingeruari emandako erantzun harekin, Mariak esan izan balu bezala da: «Argizarizko arbela bezalakoa naiz: Jainkoak nahi duen guztia idatz dezala nigan». Antzina, argizarizko oholtxoetan idazten zen; guk orain esango genuke: «Paper zuria naiz: Jainkoak nahi duen guztia idatz dezala nigan».

Pentsa liteke Mariarena fede erraza izan zela. Mesiasen ama izatea: ez al zen hau neska hebrear guztien ametsa? Baina oso osorik huts egin dezakegu. Hura izan zen historiako fede egintza zailena. Nori azal diezaioke Mariak bertan gertatutakoa? Nori sinetsiko dio bere baitan daraman haurra «Espiritu Santuaren egintza» dela esaten duenean? Hori ez zen lehen sekula gertatu eta ez da inoiz gertatuko berriz. Mariak ondo zekien zer zegoen idatzia Moisesen legean: ezkontza egunean birjintasun egoeran aurkitzen ez zuten neska gaztea, aitaren etxeko atarira eraman eta harrikatua izango zen (Ik. Dt 22, 20 eta hurr.). Mariak, bai, ezagutu zuela «fedearen arriskua»! Mariaren fedea ez zen izan egia jakin bati baiezkua eman izana, baizik eta Jainkoaz fidatu izana; bete betean eman zuen baiezkua, «Jainkoarentzat ezer ezinik ez dela» sinetsita.

Egia esan, Mariak ez zuen inoiz «fiat» esan, ez baitzuen latinez hitz egiten, ezta grekoz ere. Denok ezagutzen eta sarritan errepikatzen dugun hitz bat aterako zitzaion ezpainetatik. «Amen!» esango zuen. Hitz horrekin, hebrear batek Jainkoarekiko baiezkoa adierazten zuen, bere asmoekiko atxikimendu osoa.

Mariak ez zuen baiezkoa eman etsipen tristearekin, pozez beterik baizik. *Magnificat* (Handiesten du nire arimak Jauna) kantatu zuen berehala. Gorespen- eta poztasun-kantua da. Fedeak zoriontsu egiten du, sinestea ederra da!

Fedea da benetako Gabonak egiteko sekretua; azal dezagun zer zentzutan. San Agustinek zera esan zuen: «Mariak fedez ulertu eta fedez erditu zuen»; are gehiago, «Kristo lehenago hartu zuen bihotzean, gorputzean baino». Guk ezin dugu Mariak bezala Jesus erditu; baina Mariak bezala Jesus ulertu eta onartu dezakegu. Sinestea «ulertzea» da, hitzari haragia ematea da. Jesusek berak dio bere hitza hartzen duena «anaia, arreba eta ama» bihurtzen dela beretzat (Ik. Mk 3, 33).

Beraz, Kristo ulertzeko eta erditzeko zer egiten den ikusiko dugu. Jokabidez aldatzeko eta bere bizitzari buelta bat emateko erabakia hartzen duen pertsonak onartzen du Kristo. Jesusi emana bizi da bere bizitzan eta ohituretan aldaketa zehatz eta nabariren bat egin nahi duen pertsona. Adibidez, biraoak esaten zituenak, esateari uzten dio; harreman kaltegarria bazuen, moztu egiten du; gorrotoa bizi zuenak, bakea egiten du; sakramentuetara inoiz hurbiltzen ez zena, itzuli egiten da; etxean urduri bazegoen, ulerkorrago agertzea bilatzen du, eta abar.

Zer eramango diogu aurten jaio den haurrari? Bitxia izango litzateke denei opariak egitea, jaioberriari izan ezik. Liturgia ortodoxoaren otoitz batek ideia zoragarri bat iradokitzen digu: «Zer eskain diezazukegu, oi Kristo, gugatik gizon egin izanaren truke? Izaki orok

bere eskersaria ematen dizu: aingeruak bere kantua, zeruak izarra, Magoak opariak, artzainak gurtzea, lurak haitzulo bat, lehorteak ganbela bat. Baina guk, guk Ama Birjina eskaintzen dizugu!». Guk —hau da, gizadi osoak— Maria eskaintzen diogu!

Ospakizunaren hasieran gogoratu dugu asteburu honetan Caritasen kanpaina berezia dugula, behartsuenei laguntzeko eta guztion beraiekiko sentipena eta bizipena aztertzeko. Samariar on bezala beraingana gerturatzea, haien zauriak ezagutzea, barru-barrutik onginahia sentitzea eta laguntza ematea garrantzitsua da beraien bizitza hobetzeko eta geurea ere edertzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamera ekar diezagun:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



- Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. ✠.
- Ordenatu berria den Fernando gure gotzain berriaren alde: zubiak eraikiz eta kristau herriarekin elkarlanean, izan dadila gure elizbarrutiak behar duen artzain ona. Egigun otoitz. ✠.
- Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baikik.

—Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. *℟*.

—Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberritako festak neurritsu antolatzerakoan. Egigun otoitz. *℟*.

Onginahizko eta errukizko Jainkoa, entzun gure otoitzak eta emaguzu Espiritu Santuaren dohaina, Mariak bezala onar dezagun Zure Semea. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Gogoratu gaurko diru-bilketa gure parrokiako Caritasen beharretarako izango dela. Izan gaitezen eskuzabalak.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez santu egin zuen Espirituak sagara ditzala
zure aldarera ekarri ditugun eskaintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 4. (*Meza-liburua: 471. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hau eskatzen dizugu:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaina,
presta gaitzela hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 15. or.*)

**ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN
ELKARTEKO OSPAKIZUNA**

**CELEBRACIÓN COMUNITARIA
DEL SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN**

CELEBRACIÓN COMUNITARIA DEL SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN

Canto: Tiempo de espera (CLN, n. 13)

Saludo

El Dios del amor que viene a nuestro encuentro esté con vosotros.

Monición de entrada

Todo el tiempo de Adviento es una larga preparación para la Navidad, para acoger al Señor que viene. El Adviento es una llamada a preparar el camino al Señor y escuchar la palabra de Dios.

En esta celebración lo queremos hacer de una manera más intensa; esta celebración quiere ser un paso adelante en nuestra marcha peregrina y esperanzada, en nuestro preparar el camino para encontrarnos con el Dios que vino, viene y vendrá.

Oración

**Concédenos, Señor Dios nuestro,
esperar vigilantes la venida de Cristo, tu Hijo,
para que, cuando llegue y llame a la puerta,
nos encuentre velando en oración
y cantando con alegría sus alabanzas.
Por nuestro Señor Jesucristo tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.**

Primera lectura

Isaias 40, 1-5, 9-11 *[Del II. Domingo de Adviento, Ciclo B]*

ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN ELKARTEKO OSPAKIZUNA

Kantua: Zatoz, Jauna! (Gora Jainkoa 2, 4. orrialdea).

Agurra

Gure bidera ateratzen Maitasunaren Aita Jainkoa izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Abendualdi osoa da Eguberrialdirako prestaera luze bat, badatorren Jauna onartzeko prestaera. Jaunari bidea prestatzeko eta Jainkoaren hitza entzuteko deia dugu Abendualdia.

Ospakizun honetan era sendoagoan otoitz egin nahi dugu; ospakizun hau gure erromesaldi itxaropentsuan aurrerapausoa gerta daiteke, etorri zen, badatorren eta etorriko den Jainkoaren topo egiteko prestaera ederra gerta dakigula.

Otoitza

**Jainko Jauna,
egizu, erne egon gaitzela
zure Seme Jesukristoren etorrera itxaroten;
ate joka datorrenean,
otoitzean aurki gaitzan,
Bera goresten pozez kantari.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Lehenengo irakurgaia

Isaias 40, 1-5, 9-11 *[B urteko Abendualdiko II. Igandekoa]*

Salmo responsorial

Salmo 102, 1b-2. 3-4. 6-7. 8 y 11: «Gustad y ved» (CLN, n. 518).

Evangelio

Mateo 4, 12-17 [Del III. Domingo del Tiempo Ordinario, Ciclo A, abreviado]

Breve homilía

El Reino se hace presente **en Jesús, en su persona, en sus palabras y en sus acciones**. La persona de Jesús encarna el Reino. Dios se nos comunica en Cristo Jesús y comparte con nosotros su vida. Esa vida es el Reino, vida que se hace presente ya ahora en la historia de los hombres que se convierten y cambian de vida.

El Reino se hace presente **en la predicación** de Jesús. Sus palabras son como un grande exorcismo que echa afuera los poderes que usurpan la soberanía de Dios. Sus palabras infunden una esperanza nueva en el corazón de los hombres. El evangelio es buena noticia de la cercanía y amor de Dios. Son palabras de consuelo que curan los corazones afligidos que suspiran porque Dios haga justicia en el. Las palabras de Jesús hablan de una nueva oportunidad para el pecador. Es posible rehacer la vida y reiniciar en amistad con Dios.

El Reino se hace presente **en las obras de Jesús** que muestran la transformación individual y social que trae el reino. Los diversos tipos de curaciones son el signo de que Dios actúa a favor de la felicidad del hombre. Dios no reina para sus propios intereses sino que busca el bien de sus hijos.

El Reino se hace presente **en la comunidad de los discípulos** (Mt 4,12-23). La venida del Reino cambió la vida de Jesús y cambió la vida de los discípulos, que inauguraron un nuevo estilo de vida en familia basada no en los lazos de la sangre sino precisamente en el seguimiento de Jesús.

Erantzun Salmoa

I Lk 1, 46-48a. 48b-50. 53-54 [Liburuxka honetan, 37. orrialdean]

Ebanjelioa

Mateo 4, 12-17 [Del III. Domingo del Tiempo Ordinario, Ciclo A, abreviado]

Homilia laburra

Jesusengan gauzatzen da Erreinua, **Berarengan, bere hitzetan, bere egintzetan**. Jainkoa Jesu Kristoren bidez mintzo zaigu eta Hirutasunaren barne-harremana guri ezagutarazten digu. Erreinuko bizitza da Jainkoaren bizitza, bihotz-berritzen eta bizitza berriz bizi duten gizakien historian presente egiten den Erreinuko bizitza.

Jesusen predikazioan egiten da presente Erreinua. Bere hitzak Jainkoaren nagusitza alboratu nahi duten indarren aurkako arao-otoitza (exorzismoa) dira. Jesusen hitzek itxaropen berria helarazten dute gizakien bihotzetara. Ebanjelioa, Jainkoaren gertutasunaren eta maitasunaren berri ona da. Jainkoak munduan justizia egin dezan itxaro duten nekatuen bihotzetan, sendatzen duen kontsolamendua dira Jesusen hitzak. Bekatariarentzat aukera berriaz mintzo da Jesus. Bizitza berregitea eta Jainkoarekin berriro adiskide izatea posible da.

Jesusen egintzetan egiten da presente Erreinua, egintza horiek adierazten baitute Jesusek dakarren eraldaketa bai gizaki bakoitzarentzat eta baita gizarte osoarentzat ere. Sendakuntzak Jainkoak gizakien zorionerako ari duen indarra adierazten dute. Jainkoa ez da bere interesen alde ari, seme-alabon onerako baizik.

Ikasleen elkartean egiten da presente Erreinua (Mt 4, 12-23). Erreinuaren etorrerak Jesusen bizitza aldatu zuen eta ikasleena ere bai, bizitza estilo berri bati hasiera eman baitzioten: odolaren lotura ez baizik eta Jesusen jarraibidea lokarri duen familia osatuz.

Esa comunidad está al servicio del Reino, es una parábola que muestra cómo el Reino se hace presente entre los hombres y derriba las fronteras sociales y religiosas que tantas veces separan a los hombres y mujeres.

Examen de conciencia

La lista de preguntas que aquí aparece no es para ser leída, sin más, en este momento. La ofrecemos, más bien, como ayuda para quienes tengan que preparar el examen de conciencia. Después, cada cual sabrá cómo hacerlo, qué aspectos de la fe conviene destacar más en esta celebración, si conviene hacer algunas de estas preguntas o formular otras...

MI RELACIÓN CON DIOS

¿Reconozco a Dios como Padre y confío en Él? ¿Vivo con alegría y esperanza, porque me siento querido y salvado por Él? ¿Dejo que ocupe el centro de mi existencia? ¿Lo amo sobre todas las cosas? ¿Soy consecuente con ese amor a Dios, amando a los hermanos? ¿Cuido mi salud espiritual, mi crecimiento y maduración en la fe? ¿Busco apoyos para revisar mi vida y no vivir la fe en solitario? ¿Me esfuerzo por vivir desde la síntesis entre fe y vida? ¿Me reconozco, en la presencia de Dios, necesitado de conversión? ¿Me preocupo de celebrar periódicamente el sacramento de la Reconciliación? ¿Alimento mi relación con el Señor, en la oración cada día? ¿Sé ofrecerle mis ocupaciones, mis alegrías y sufrimientos? ¿Sé perdonarme mis propias limitaciones, sabiendo que Dios me perdona? ¿Leo la Palabra de Dios, sobre todo los Evangelios, para orientar mi vida desde sus criterios? ¿Participo en la Eucaristía del domingo, el día del Señor, y la valoro como fuente y motor de mi vida cristiana? ¿Vivo con conciencia clara de que mi fe sólo será auténtica, si es fe comunitaria?

Elkarte hori Erreinuaren zerbitzura dago. Erreinoa gizakien artean presente nola egiten den adierazten duen parabola da elkarte hori, eta gizakiak askotan zatitzen dituen muga sozialak eta erljiosoak haustera dator.

Kontzientzi azterketa

Hemen datorren galdera sorta ez da, besterik gabe, une honetan irakurtzeko pentsatua. Kontzientzi azterketa prestatu behar duenari laguntzeko prestatu dago; bakoitzak ikusiko du nola egokitu, zein alderdi apimarratu edota zein galdera kendu eta erantsi behar duen, elkarte bakoitzaren beharren arabera...

JAINKOAREKIKO NIRE HARREMANA

Jainkoa Aita dudala aitortzen al dut? Berarengan konfiantza ba al dut? Pozez eta itxaropenez bizi al naiz, Jainkoak maitatua eta salbatua sentituz? Jainkoa al da nire bihotzaren mina? Maite al dut gauza guztien gainetik? Jainkoaren maitasun hori senideak maitatuz bizi al dut? Zaintzen al dut nire espiritu-bizitza, fedean haziz eta heldutasuna iritsiz? Bilatzen al dut laguntzarik fede-bidean, edota bakardadean bizi dut nire kristau izatea? Ahalegintzen al naiz bizitza eta fedea uztartuz aurrera egiten? Konturatzen al naiz, Jainkoaren aurrean jarrita, bihotz-berritze beharra dudala? Arduratzen al naiz Adiskidetze sakramentua noizean behin ospatzeaz? Jainkoarekiko harremana zaintzen al dut eguneroko otoitz eginez? Berari eskeintzen al dizkiot nire lanak, nire pozak eta nire ezinak? Ba al dakit neure buruari barkatzen, Jainkoak barkatzen nauela jakinik? Irakurtzen al dut Jainkoaren Hitza, bereziki Ebanjelioa, nire bizitza beraren irizpideeen arabera antolatzeko? Parte hartzen al dut Igandeko Eukaristian, Jaunaren egunean, nire kristau bizitzarako iturri eta eragile dela aitortuz? Konturatzen al naiz egiaz, elkartean bizi den fedea dela egiazko fede?

MI RELACIÓN CON LOS DEMÁS

¿Cómo es mi trato con los demás?... (familiares, amigos, vecinos, compañeros de trabajo, miembros de la comunidad cristiana? ¿Hago lo posible para potenciar el amor y la comprensión entre todos, a pesar de nuestras diferencias, o tiendo a encerrarme y acabo haciendo imposible el diálogo? ¿Hago mía la apuesta de Dios por los pobres? ¿Qué atención dedico a quienes peor lo están pasando? ¿Practico la justicia y la caridad? ¿Respeto y potencio los derechos de los demás? ¿Me esfuerzo por tener buen corazón, por ser tolerante, capaz de perdonar, y ayudar a quienes más lo necesitan? ¿Doy buen ejemplo a los demás, o no me importa escandalizar? ¿Participo como miembro activo en los trabajos y tareas de mi comunidad parroquial? ¿Me preocupo de participar en la reflexión para crear un nuevo marco pastoral en nuestra diócesis? ¿Pongo a disposición de la comunidad cristiana los dones que Dios me ha concedido, potenciando en ella los distintos servicios y ministerios?

MI RELACIÓN CONMIGO MISMO

¿Sé hacer autocrítica, reconociendo mis fallos, o estoy en constante actitud de crítica a los demás? ¿Me creo justo, como los fariseos, o reconozco la necesidad que tengo de conversión y perdón? ¿Domino mi genio, mi tendencia a la envidia, o a otras actitudes que hacen daño? ¿Vivo con sentido cristiano mis deberes en el trabajo, en la vida de familia, en la vida social y política, en la comunidad, en mi tiempo de descanso? ¿Soy fiel a las promesas del matrimonio, de la vocación sacerdotal o religiosa? En este tiempo de Adviento, ¿me he abierto a la gracia de Dios y procuro vivir con esperanza y alegría mi fe cristiana? ¿Tengo presente en mi vida a la Virgen María, como Madre y compañera de camino?

BESTEEDIKIO NIRE HARREMANA

Nolakoa da besteekin dudan harremana? (etxeakoekin, lagunekin, bizilagunekin, lankideekin, kristau elkarteko kideekin). Desberdintasunak izan arren, saiatzen al naiz denekiko maitasuna eta ulermena sendotzen, edota neure baitan itxita bizi naiz inolako elkarrizketarik bideratu gabe? Neure egiten al dut Jainkoak behartsuekiko duen lehentasuna? Zer arreta eskaintzen diet gaizki pasatzen dutenei? Justizia eta karitatea bizi al ditut? Besteen eskubideak errespetatu eta babesten al ditut? Saiatzen al naiz bihotz oneko izaten, harrera oneko, barkatzen bizkor eta laguntzeko prest beti? Eskandalagarri gertatzen natzaie besteiei, edo neure jarrera onez aberasten ditut? Saiatzen al naiz Elizbarrutiak pastoral erronka berriei erantzuteko ari duen hausnarketan parte hartzen? Kristau elkartearen zerbitzura jartzen al ditut Jainkoak eman dizkidan dohainak, elkarteko zerbitzu eta ministeritza desberdinak bultzatuz?

NEURE BURUAREKIO HARREMANA

Ba al dakit neure erruekiko kritikoa izaten edota besteekiko kritikan jarduten naiz beti? Neure burua ontzat daukat, farisearrek bezala, edota konturatzen naiz bihotz-berritze eta barkamen beharra dudala? Neurtzen al dut nire genioa, enbidia izateko joera edota kalte egite dituzten beste hainbat jokabide? Kristau eran bizi al ditut nire ardurak lanean, familian, gizarteko bizitzan, elkartean, atsedenean? Leiala al naiz ezkontzako, apaizgoko nahiz erlijioso bizitzako promesekin? Abendualdi honetan, zabaldu al diot bihotza Jainkoaren grazia, kristau bizitza itxaropenez eta pozez biziz? Maite al dut Maria Birjina, Ama eta bidelagun bezala?

Rito de reconciliación

Hermanos: confesad vuestros pecados y orad unos por otros para obtener misericordia.

*Todos juntos dicen: **Yo confieso...***

Hermanos y hermanas, confiemos a Dios nuestra voluntad de conversión. Que Él, Padre misericordioso, nos purifique de nuestras infidelidades e incoherencias.

*Respuesta: **¡Marana tha! ¡Ven, Señor Jesús!***

— Por nuestra pobre fe: por nuestras dudas y miedos, por nuestra falta de compromiso y de testimonio, por nuestra rutina y desgana para orar te pedimos perdón.

— Por nuestra débil esperanza: por nuestros desánimos y tristezas, por nuestras prisas e impaciencias, por nuestro olvido de la palabra de Dios te pedimos perdón.

— Por nuestra tibia caridad: por nuestra falta de sensibilidad ante el sufrimiento de los demás, por nuestros gastos excesivos, por nuestras violencias, agresividades y rencores te pedimos perdón.

— Y por todos nuestros pecados: nuestras mentiras e hipocresías, nuestro consumismo y deseos de tener, nuestras faltas generalizadas de prudencia te pedimos perdón.

Como Cristo nos enseñó, pidamos al Padre que venga a nosotros su Reino de verdad, de amor y de esperanza, sintiéndonos de la familia de los hijos e hijas de Dios: **Padre nuestro...**

Confesión y absolución individual

Lo fieles se acercan a los sacerdotes, que se hallan en lugares adecuados, y confiesan de uno en uno sus pecados de los que son absueltos. Un canto o una música adecuada puede servir de ayuda.

Adiskidetzearen ohikunea

Senideok: aitortu zuen bekatuak eta egin otoitz elkarren alde, errukia iritsi ahal dezazuen.

*Guztiek esango dute: **Aitortzen diot...***

Senide maiteok, jar dezagun Jainkoarengan gure bihotz-berritzeko gogoak. Berak, Aita errukitsuak, garbi gaitzala gure leialtasun falta guztietatik, gure koherentzia faltatik.

*Erantzuna: **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!***

- Gure fede ahulagatik: gure zalantza eta beldurrengatik, gure konpromiso eta testigantzagatik, gure fintasun falta eta gogorik ezagatik barkamena eskatzen dizugu.
- Gure itxaropen ahulagatik: gure tristura eta axolagabekeriagatik, gure presa eta pazientzia faltagatik, Jainkoaren Hitzaz ahazteagatik barkamena eskatzen dizugu.
- Gure maitasun epelagatik: besteen minarekiko arduraz faltagatik, gure gastu neurrigabeengatik, gure indarkeria, haserre, gorroto eta ikusi ezinagatik barkamena eskatzen dizugu.
- Gure bekatu guztiengatik, gure gezur eta itxurakeriagatik, kontsumokeriagatik, gehiegi edukizteko gogoatik, neurri faltagatik barkamena eskatzen dizugu.

Kristok irakatsi bezala, eska diezaiozun Aitari etor dadila gugana egiaren, maitasunaren eta itxaropenaren berre Erreinua, Jainkoaren seme eta alaben familiakoak garela sumatuz: **Gure Aita...**

Banakako aitortza eta barkamena

Apaizengana gerturatuko dira orain bere bekatuak aitortu nahi dituztenak, banaka aitortza egin eta bekatuen barkamena hartzera. Bitartean kantu edota musika egokiak lagun dezake giroa sortzen.

Acción de gracias por la misericordia de Dios

Concluidas las confesiones, quien preside la celebración, teniendo al lado a los otros sacerdotes, invita a dar gracias y a la práctica de las buenas obras, con las que se manifiesta la gracia de la penitencia, tanto en la vida de cada uno como en la de la comunidad.

Canto: El Dios de paz (CLN, n. 1).

Oración

Oremos.

Todos guardan un momento de silencio.

Señor Jesucristo, rico en misericordia y generoso en el perdón, que quisiste aceptar la debilidad de la carne, para que nosotros siguiéramos tu ejemplo de humildad y fuésemos fuertes en la prueba: haz que conservemos siempre los bienes que hemos recibido de ti, y que, por la penitencia, nos levantemos cada vez que caemos en el pecado y podamos cantar tu infinita misericordia. Te lo pedimos a ti, que vives y reinas por los siglos de los siglos. R/. Amen.

Rito de conclusión

El Señor esté con vosotros. R/. Y con tu espíritu.

Inclinaos para recibir la bendición.

El Señor dirija vuestros corazones en la misericordia de Dios y en la espera de Cristo. Para que podáis caminar con una vida nueva y agradecer a Dios en todas las cosas. R/. Amén.

Y que os bendiga Dios todopoderoso, Padre, Hijo + y Espíritu Santo. R/. Amén.

El Señor ha perdonado vuestros pecados. Podéis ir en paz. R/. Demos gracias a Dios.

Jainkoaren errukiarengatik eskerrak ematea

Aitortzak bukatuta, batzarburuak beste apaizak ere ondoan dituela, eskerrak emateko eta egintza egokiren bat egiteko deia luzatuko du. Penitentziaren graziaren adierazgarri izango da hori bai norberaren bizitzarako bai elkarteko bizitzarako ere.

Kantua: Bakea ta justizia (Gora Jainkoa 2, 7. orrialdea).

Otoitza

Egin dezagun otoitza.

Isilunea utzi.

Errukian aberatsa eta barkatzen eskuzabala zaren Jesu Kristo gure Jauna, giza haragiaren ahultasuna onartu zenuen, zure apaltasun ereduari jarraiturik zailtasunean gu sendotzeko: egizu zaindu ditzagula beti zugandik hartu ditugun dohainak eta penitentziaren bidez altxa gaitezela bekatuak erorrarazten gaituenean zure amaigabeko errukia goratu ahal izateko. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. R/. Amen.

Bukaerako ohikunea

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jainkoaren bedeinkapena hartzeko.

Jaunak zuzen ditzala zuen bihotzak Jainkoaren errukian eta Kristoren itxaropenean. Bizi berri bat goza dezazuela, gauza guztietan Jainkoarentzat atsegin izateko. R/. Amen.

Eta bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak, Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.

Barkatuak daude zuen bekatuak. Zoazte Jaunaren bakean.
R/. Eskerrak Jainkoari.

